

# 9/24

## *irizpena*

EAEko abeltzaintza-ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen eta irailaren 22ko 515/2009 Dekretua indargabetzen duen **dekretu-proiektuari buruzkoa**

**Bilbo, 2024ko ekainaren 28a**



**CES**  
**EGAB**

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 9/24

---

## I.- AURREKARIAK

---

2024ko ekainaren 10ean Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazkia jaso den Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Bertan, "EAEko abeltzaintzako ustiategiaren arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen eta irailaren 22ko 515/2009 Dekretua indargabetzen duen dekretu-proiektuari" buruzko txostena eskatzen zen.

Kontsultatzen zaigun arauaren xedea da, 1. artikuluan adierazten denez, EAEko abeltzaintzako ustiategiak bete beharreko baldintza teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak, hargatik eragotzi gabe sektoreko gainerako arau bereziak, higieniko-sanitarioak, ingurumenekoak, hirigintzakoak eta aplikagarri diren bestelakoak betetzea.

Berehala bidali zitzaizen dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia bidaltzeko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezela, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudiak xedatutakoaren arabera.

2024ko ekainaren 24ean Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta bertan hartutako erabakiak oinarri, honako irizpen-proiektu hau egin zen Batzordeak ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran aurkezteko. Aho batez onetsi zuten.

## II.- EDUKIA

---

Dekretu-proiektuak azalpen-zati bat eta 24 artikulua dituen xedapen-zati bat ditu, bost kapituluatan banatuta; bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, lau azken xedapen eta bederatzi eranskin.

Dekretu-proiektuaren azalpen-zatian aipatzen den bezala, azken urteotan arau-garapen zabala egin da Europan zein Estatuan, eta horrek EAEko abeltzaintzako baldintzen berezitasunera egokitzea eskatzen du. Halaber, nahitaezkoa da Estatuko araudian jasota ez dauden alderdi partikular batzuk arautzea.

Arau-aldaketa horiek guztiak direla eta, beharrezkoa da arau berri bat onestea, eta ez lehendik dagoena aldatzea (abeltzaintzako ustiategiaren arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretua).

### Xedapenen zatia

**Xedapen orokorrak** deituriko **I. kapituluak** goiko lerroetan azaldutako dekretu-proiektuaren xedea du barne (1. artikulua), bai eta arauaren aplikazio-eremua ere, EAEko abeltzaintzako ustiategiari aplikagarri zaiena (2. artikulua). 3. artikuluan dekretua aplikatzeko oinarrizko kontzeptuen definizioak sartzen dira, eta, 4. artikuluan, berriz, sailkapen-irizpide diferentzialak, abeltzaintzako ustiategi moten arabera. Bestalde, lehenengo kapitulua ixten duen 5. artikulua, abeltzaintzako ustiategiaren pertsona titularrek bete beharreko betebeharrak ditu jasota.

**II. kapitulua ustiategi horien kokapenez eta azpiegituraz** arduratzen da; hala, 6. artikuluan indarrean dagoen araudia nahitaez bete behar dela gogorarazten da, errespetatu beharreko distantziak dagokienez, eta distantzia horiek kalkulatzeko modua azaltzen da. 7. artikulua eraikinen proportzionaltasuna eskatzen du, ustiategiko abere-kopuruaren arabera eta espezie bakoitzak behar dituen zaintza-lanak betetzea ahalbidetzen duten ala ez kontuan hartuta. Gainera, instalazioek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen ditu. Azkenik, 8. artikulua kapitulua ixten du ustiategietan dauden animaliek kontsumorako elikagaiak kontserbatzera bideratutako obra-siloek bete beharreko

baldintzekin.

**III. kapitulua** (9. artikulutik 16. artikulura) **abeltzaintzako ustiategiek bete beharko dituzten ingurumeneko baldintzez** arduratzen da, hala nola simaurra, minda eta ustiategietako bestelako hondakinak kudeatzea eta ustiategi horietan abeltzaintzak eragiten dituen isuri kaltegarriak arintzeko neurriak.

**IV. kapitulua** (17. artikulutik 22. artikulura) **administrazio-izapideari** buruzkoa da, eta gida batean datza, EAEn dauden abeltzaintzako ustiategien titularrek izapideak errazago bete ditzaten, ustiategien alta eta inskripzioari, baimenari eta erregistroari, aldaketei, ixteari eta ustiategi motaren araberrako espezialitateei dagokienez.

Azkenik, **V. kapituluak** (23. artikulutik 24. artikulura) **ikuskapenei eta arau-hausteei** buruzko informazioa du; jasota uzten ditu toki-erakundeek zein foru-organoek egikaritu beharreko eskumenak, horiek baitira udalei lagunduko dietenak, sailkatutako jarduera eta instalazioen araudiari dagokionez.

Bestalde, **lehenengo eta bigarren xedapen iragankorrek** ustiategiek jarraitu beharreko prozedura ezartzen dute, baldin eta ustiategi horiek baimena lortzeko izapide horiek hasita badituzte, eta lehendik zeudenekiko desberdintasunak ere ezartzen ditu.

**Xedapen indargabetzaile bakarrak**, txostenaren xede den dekretuan xedatutakoaren aurka dauden edo hura urratzen duten maila bereko edo behegoko arau guztiak indargabetuta uzten dituen klausula orokorra jasotzeaz gain, EAeko gai horri buruzko aurreko erregulazioa, 515/2009 Dekretua, berariaz indargabetzea jasotzen du.

**Azken xedapenei** dagokienez, **lehenengoak** Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.C eranskinako (Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak eta instalazioak) 17. eta 18. puntuak aldatzen ditu; **bigarrenak** lege bereko 1D eranskinako 10. puntua; eta hirugarrenak ingurumen eta nekazaritzaren arloan eskumena duten sailtako titularren aldeko gaikuntza jasotzen du, txostena egiten ari gatzaizkion dekretu-proiektuan xedatutakoa baterako agindu bidez garatzeko eta, horrela, proiektuaren eranskinak aldatzeko. Azkenik, **laugarrenak** ezartzen du noiz jarriko den indarrean dekretu-proiektu hau; EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean, alegia.

**Eranskinei** dagokienez, **lehenengoan** araudi honen aplikazio-eremuaren barruan dauden abeltzaintzako espezie eta espezie-taldeen zerrenda bat dago. **Bigarrena** ustiategi mota bakoitzean egon behar diren gehieneko abere-kopuruari buruzkoa da. **Hirugarren** eranskinak, bestalde, abeltzaintzako unitateak barne hartuta ditu. **Laugarrenean**, dekretu hau aplikatu behar zaien EAeko abeltzaintzako ustiategiek biztanleguneekiko izan behar dituzten distantziak aztertzen dira; **bosgarrenean**, beste instalazio edo elementuekiko distantziak, hala nola hodiak edo bainu-eremuak; eta **seigarrenean**, simaurrak eta mindak aplikatzerakoan errespetatu beharreko distantziak. **Zazpigarrenak** hiru hilabeterako biltegitratze-plaza bakoitzeko simaurra eta minda neurtzeko irizpideak jasotzen dituen taula bat du. **Zortzigarrena** instalazioen eta obren proiektu teknikoaren betekizunei buruzkoa da, sailkatutako jarduera gisa izapidetzeko, eta **bederatzigarrenak** erantzukizunpeko adierazpenari buruzko informazioa ematen du.

### **III.- GOGOETA OROKORRAK**

---

Dekretu-proiektuaren hitzaurrean jasotzen den bezala, abeltzaintza ezinbestekoa da landa-

komunitateen ekonomiarako eta iraupenerako, eta kualitatiboki eta kuantitatiboki garrantzitsua den ekonomia-jardueraren sektorea osatzen dute. Hala ere, jarduera horiek, dimentsioaren eta tartean dauden animalia-espezieen arabera, hainbat ondore izan ditzakete ingurumenean, osasungarritasunean eta, azken batean, kokaguneetako bizi-kalitatean. Hori dela eta, beharrezkoa da bi ikuspegi horiek uztartzea gurea den lurralde-eremuan, nekazaritzak eta horrek garatzen dituen komunitateak arriskuan daudela, eta, aldi berean, abeltzaintzak ingurumena eta osasungarritasuna zaintzeko modu errespetagarrian eta bateragarrian egin ahal izatea.

Xede horrez, abeltzaintzako ustiategien arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretua argitaratu zen. Arau-xedapen horrek 141/2004 Dekretua indargabetu zuen. Dekretu horrek lehen aldiz ekin zion Euskadiko abeltzaintzako ustiategien instalazioaren eta jarraitutasunaren antolamenduari eta erregulazioari.

Irizpen honen II. puntuan aipatu den bezala, azken urteotan araututako gaiak **arau-garapen oparoa izan du, Europan nahiz Estatuan**. Hori dela eta, **halabeharrezkoa da** 515/2009 Dekretua egungo testuingurura egokitzea eta EAEko abeltzaintzako ustiategien erregulazio-eremuan eragina izan dezaketen alderdiak gehitzea bateratuko dituen **arau berri bat egin eta onestea**.

Arau-proiektuaren xedea, hain zuzen ere, abeltzaintzako ustiategien funtzionamendua zuzendu behar duten arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak betetzeko baldintzak eguneratzea denez, eta EAEko abeltzaintzako ustiategiak mantentzeko eta kudeatzeko beharra eta ingurumena zaintzea bateragarri egiteko tresna gisa eratzen denez, Kontseilu honek uste du **gure iritzira aurkezten den dokumentua egokia dela**, eta positibotzat jotzen dugu arau berri bat egitea aukeratu izana, eta ez lehendik dagoena aldatzea (irailaren 22ko 515/2009 Dekretua).

Alabaina, azpimarratu behar dugu deigarria dela akuikultura, helizikultura eta intsektu-hazkuntza sartuta egotea abeltzaintzako ustiategien araudi honetan. Edonola ere, arrain-haztegiak, ingurunearekiko dituzten berezitasunen ondorioz, araubide berezia izan beharko lukete, eta ez abeltzaintzako ustiategien araubide bera.

## IV.- ONDORIOA

---

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egoki deritzo *“EAEko abeltzaintzako ustiategien arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen eta irailaren 22ko 515/2009 Dekretua indargabetzen duen dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako gogoetekin.

Bilbon, 2024ko ekainaren 28an

OE Presidentea

Idazkari Nagusia

Javier Muñecas Herreras

Izaskun Astondoa Sarria